Lan-eskaintzen erregistroa 2022an

ERREGISTRATUTAKO LAN-ESKAINTZA KOPURUA

Euskal Autonomia Erkidegoko enplegu-bulegoetan 14.834 eskaintza erregistratu dira 2022an, 2021ean baino 3.008 gehiago (% 25,4ko igoera).

• LURRALDE HISTORIKOAK

Kudeaketa Administrazio Unitateko lurralde historikoari dagokionez, 2.220 eskaintza erregistratu dira Araban, 6.043 Gipuzkoan eta 6.571 Bizkaian. Eskaintzen % 44,3 Bizkaiko UAG-etan erregistratu dira, % 40,7 Gipuzkoan eta % 15 Araban.

Hiru lurraldeek bilakaera positiboa izan dute azken urtea honetan. Gipuzkoan igo dira gehien eskaintzak, bai balio absolutu zein erlatibotan, % 29,8ko igoerarekin; Araban % 26,3koa izan da igoera, eta Bizkaian % 21,4koa.



• ESKAINTZAREN OKUPAZIOA

Bost okupazio-profilek biltzen dituzte EAEn erregistratutako eskaintza gehienak. Zientzietako teknikarien profilak izan ditu eskaintza gehien; eskaintza guztien % 20,3 (3.008 eskaintza). Laguntzako teknikarien, zerbitzuetakoen, industriakoen eta kualifikatu gabekoen eskaintzek ere pisu nabarmena dute erregistratutako eskaintzei dagokienez, erregistratutako eskaintzen kopurua 2.558, 2.554, 2.291 eta 1.896 eskaintzakoa baita, hurrenez hurren. Eskaintza gutxien erregistratu dituen profila zuzendaritza da, 104 eskaintzarekin soilik, eta, ondoren, lehen sektoreko langileen profila, 133 eskaintzarekin.

Urte arteko saldoari dagokionez, profil guztietako eskaintzek egin dute gora. Balio absolutuetan, profil tekniko-zientifikoaren eskaintzak igo dira gehien, 682 eskaintza gehiagorekin (% 29,3ko igoera); balio erlatiboetan, aldiz, operadoreen eskaintzak hazi dira gehien, % 43,8ko hazkundearekin (327 eskaintza gehiago).

• KONTRATU MOTA

Erregistratutako eskaintzen % 29,4 mugagabeak izan dira, eskaintzen % 70 aldi-baterakoak, eta gainerako % 0,6 merkataritzakoak. Kopuru absolutuetan, eskaintza mugagabeak 4.360 izan dira, iaz baino 2.704 eskaintza gehiago; % 163,3ko hazkunde oso nabarmena. Aldi baterako eskaintzak 378 izan dira, 10.378; kopuru erlatiboetan % 3,1eko igoera. Azkenik, merkataritza-eskaintzak 96 izan dira 2022an, iaz baino 6 gutxiago.



Kontratuen kalitatea ikustea litzateke interesgarriena. Ildo horretan, kontratu mugagabeen portzentaia igoera nabarmendu behar da, 2021eko % 14tik 2022ko % 29,4ra igaro baita. 2021aren amaieran onartutako lan-erreformak mota horretako eskaintzen gorakada nabarmena ekarri du.

• ESKATUTAKO ESPERIENTZIA-DENBORA

2022an erregistratutako eskaintzen % 76,6k 0-6 hilabeteko esperientzia eskatzen dute, 11.362 eskaintza guztira. Eskaintzen % 12k (1.773) esperientzia handiagoa behar dute, 6 eta 12 hilabete artekoa. Erregistratutako eskaintzen % 9k (1.333 guztira) urtebete eta 3 urteko esperientzia behar dute. Bolumen txikiagoak dituzte esperientzia-aldi handiagoa eskatzen duten eskaintzek; hala nola 3 eta 5 urte bitartekoak eta 5 urtetik gorakoak, % 2,1eko eta % 0,8ko pisuarekin, hurrenez hurren.



Bilakaerari dagokionez, azken urtean gora egin dute eskaintzek eskatutako esperientzia-tarte guztietan. Balio absolutuetan zein erlatiboetan, 0-6 hilabeteko esperientzia behar dutenak dira gehien igo direnak (2.525 eskaintza gehiago, % 28,6ko igoera).

Erregistratutako eskaintzek, batez beste, 7 hilabeteko esperientzia eskatu dute, 2021ean bezala.

• LANALDI MOTA

Ezer baino lehen, esan behar da lan-eskaintza guztiek ez dutela zehazten lan-jardunaldia eskaintzak erregistratzeko orduan; eskaintzen % 13,6k soilik zehazten dute lanaldia (14.834 eskaintzatatik, 2.011 bakarrik). 2011 eskaintza horietatik, 1.684 (% 83,7) lanaldi osoko lan-eskaintzak izan dira, eta gainerako 327ak lanaldi partzialekoak.



Bilakaerari dagokionez, lanaldi osoko eskaintzak 402 gehiago izan dira 2021 urtearekin alderatuta, hau da, % 31,4ko igoera. Lanaldi partzialeko eskaintzak 19 gehiago izan dira, eta igoera erlatiboa % 6,2koa izan da.

• ALDI BATERAKO LANERAKO ENPRESAK (ABLE)

Hil honetan lan eskaintzen % 1,9 kudeatu dira ABLEn bitartez, 14.834 eskaintzatatik 288. Aurreko urtean 162 izan ziren

• ESKATUTAKO PRESTAKUNTZA MAILA

Hori da eskaintzak erregistratzeko orduan beti zehazten ez den beste datu bat. Eskaintzen % 81,2k ez du zehaztu eskatutako gutxieneko prestakuntza-maila. Erregistratutako 14.834 eskaintzetatik 2.783k bakarrik zehaztu dute lanpostuko zereginak bete ahal izateko gutxieneko maila akademikoa.

2.783 eskaintza horietatik 1.072k LHko ikasketak behar zituzten (% 38,5), gehien eskatu den gutxieneko ikasketa-maila izanik. Ondoren, unibertsitateko ikasketak datoz, 1.037 eskaintzarekin (% 37,2). Ondoren, derrigorrezko gutxieneko ikasketen maila aurkituko genuke, 502 eskaintza erregistratu baitira, eta horien pisua % 18koa da. Azkenik, batxilergoko ikasketak izango genituzke, maila akademiko horrekin erregistratutako 172 eskaintzarekin; eskaintza guztien % 6,2ko pisua dute.

Eskatutako gutxieneko prestakuntza maila



Bilakaerari dagokionez, esan behar da 2022an handiagoa izan dela beharrezko ikasketa-maila zehaztu duten eskaintzen kopurua (2.783 eskaintza 2022an, eta 2.164 eskaintza 2021ean), eta, eskaintza horiek, erregistratutako eskaintza guztien gainean duten pisua ere haundiagoa izan da 2022an (% 18,8 2022an eta % 18,3 2021ean). Urte arteko erlazioan, eskaintza guztiek gora egin dute. LHko ikasketen eskaintzak igo dira gehien balio absolutuetan, 279 eskaintza gehiago, % 35,18ko igoera; balio erlatiboetan, unibertsitate-ikasketak eskatzen dituzten eskaintzak izan dira gehien hazi direnak, % 35,20ko igoerarekin, 270 eskaintza gehiago.

• ESKAINTZAREN JARDUERA

EAEko enplegu-bulegoetan erregistratutako eskaintza-bolumenagatik nabarmentzen diren jarduerak manufaktura-industria eta merkataritza dira, % 15,3 eta % 12,4ko pisuarekin, hurrenez hurren (14.834 eskaintzatik, 1.658 eta 1.464 eskaintza, hurrenez hurren).

Iazko datuekin alderatuta, eskaintza guztiek gora egin dute, finantza-jarduerak (-18 eskaintza), etxeetako jarduerak (-7) eta lurraldez kanpoko erakundeak (-1) izan ezik. Eskaintza kopurua gehien handitu duen jarduera, balio absolututan, manufaktura-industria izan da, 608 eskaintza gehiagorekin (% 36,7ko igoera); aldiz, kopuru erlatiboetan, energia hornitzeko jarduerak izan dira gehien hazi direnak (% 225eko igoera, 9 eskaintza gehiago).


Eskaintzaren jarduera
Etxeak langile enplegatzaile gisa
Beste zerbitzuak
Artistikoak, jolaserakoak eta entretenimenduzkoak
Osasun jarduerak eta gizarte-zerbitzuak
Hezkuntza
Administrazio publikoa
Jarduera administratiboak
Profesionalak, zientifiko eta teknikoak
Higiezinen arloko jarduerak
Finantza eta aseguru jarduerak
Informazioa eta komunikazioa
Ostalaritza
Garraio eta biltegiratzea
Handizkako eta txikizkako merkataritza; konponketa
Eraikuntza
Ur-horniketa, handakinen kudeaketa
Argindar, gas, lurrun horniketa
Manufaktura industriak
Erauzketa industriak
Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza, arrantza
0,00%
2,00%
4,00%
6,00%
8,00%
10,00%
12,00%
14,00%
16,00%